

LAUAXETA ETA KARMELDARRAK

1905eko abuztuaren 3an jaio zen Esteban Urkiaga Basaraz "Lauaxeta" Laukizen eta 1937ko ekainaren 25ean, goizeko 5:30ean, hil zuten Gasteizen, kartzela bihurturiko karmeldarren komentuan bi hilabete preso egin ondoren. Aurten jaiotzako data dugu batez ere gogoan. Mendeurrena dela eta, hainbat hitzaldi, idazlan, jaialdi eta aipamen izan dira eta izango urtean zehar haren omenez. Guk ere, geure ahalegintxoaz, hurbildu nahi genuke Bizkaiko olerkari handiarengana. Izenburuak adierazten duenez, Lauaxetak, hala edo hola, izan zuen zerikusia karmeldarrekin; bestalde, gure *Karmel* eta *Oleriti* aldizkarietan hainbat aldiz agertu dira hari buruzko idazlanak, olerkiak eta abar, idazle karmeldarrek eginak nahiz besteek eginak. Horiek gogorarazi nahi nituzke idazlan xume honetan.

"Mutikoa zala, fraile joan gura izan eban, karmeldarren komentu batera. Baiña Lekeitioko osabeak abade egin bear ebala esan eutson, eta or doa gure Estebantxu, zintzo-zintzo, Durangoko jesuitetara. An egotaldi bat egin ondoren, jesuita izateko gogoa etorri jakon".¹

Beraz, mutikotatik izan zuen Esteban Urkiagak karmeldarren ezaguera. Adin horretan nagusiek izan ohi dute azken hitza eta, Lekeitioko osabaren esanera, Durangoko Jesulagunetara jo zuen eta handik, geroago, Loiolara.

¹ ZARATE, Mikel, *Bizkatko Euskal Idazleak* (Bilbao, 1970)

A. Santi Onaindiak, batez ere gerratean izan zuen olerkari laukiztarrarekin harremana:

"Anai arteko gerratean guda-ordezkarri izan zan. Kanpanzar'en, Intxorta'n eta Basalgo'n sarri bostekoa etnon geuntson alkarri"².

A. Santi Onaindia izan zen Lauaxetaren olerki guztiak argitaratzen lehenengoa. Goian aipaturiko argitalpen txukunari erreparatu diot. Olerkien aurretik hiru idazlan datoz, zein baino zein interesgarriagoak: Jokin Zaitegiren "Urkiaga ta biok", Martin Itziar Agirrerren "Oroitzak" eta Luis Arostegiren "Lauaxeta'ren Poesi-gunetarantz". Lehenengo biek Lauaxetari buruzko oroipenak ekarri dituzte Santi Onaindiaren argitalpenera, bakoitzak bere ikuspegitik. Zaitegik, Josulagunetan elkarrekin izandako bizipenak, abertzale, idazle eta olerkari gisa izandakoak; Martin Itziar Agirrek, Azkoitiko plazan Lauaxetak herriko gazte abertzaleei eginiko hitzaldi sutua du abiapuntu. Gerrateko kontuak datozkio gero oroimenetik lumara gudari azkoitiarrari. Aita Patxi Gondra Pasiotarra ere haien artean zen; behin, husturik zen baserri haten atarian ziren afaltzeko zain, gurdipertika gainean jarrita gudari talde handia. Aita Patxik, ohitura zuenez, arrosarioa hasi zuen. Orduan, hil berri zen izeko zaharrak sarritan esana gogora etorri zitzaiola diosku azkoitiarrak. Hau da, bigarren karlista gerratean Lizarraga jeneralaren mutilak arrosario santua errezatzen zutela egunero. Bi edo hiru egunera jakin zuten, Lauaxeta eta Plazet jaunak atxilotuak izan zirela. Usansolotik Fikara eta hemendik Gernikara. Egoera negargarrian aurkitu zuten hiri hau. Ustekabean atxilotu eta Gasteizera eraman zituztela. Sartu zituzten lekuan ezagun eta gasteiztar batzuk etortzen omen zitzaizkien bisitatzera. Beltzez jantzitako emakume zahartxo batek esan zien egun batean, Lauaxeta eta Plazet donostiarra hilak izan zirela goizalde hartan. Kartzela bihurturik zen Gasteizko Karmeldarren komentura eraman omen zituzten eta han hamalau edo hamabost gizon adineko zeuden goiko gela batean sartu. Haiek esan zioten

² ONAINDIA, Santi, *Olerkiak. Lauaxeta* (Bilbao, 1974)

OLERKI GUZTIAK



LAUAXETA

Lauaxeta eta Plazet gela hartan egon zirela eta Karmengo Amaren koadro bat erakutsiz adierazi zioten, Lauaxetak, kartzelako astiuneetan, haren atzeko aldean idatzi zuela Ama Birjinari erdaraz eginiko sonetoa. Euskarazkorik ez ote zuen idatzi galdetu zien berak eta haiek baietz, hormako gurutze beltz batean idatzi zuela euskarazkoa, baina harrezkero gurutzea norbaitek aldatu egin zuela...

Geroxeago itzuliko naiz Luis Arostegiren idazkia pixka bat aztertzeraz. Orain Lauaxetarekin harremana izan zuten bi karmeldar aipatu nahi ditut: Aita Sabino eta Aita Nartziso.

Aita Sabino (1884-1973). Eduardo Alonso Olalde zeritzon, Leringo semea. Literatura eta erlijio gaiak erabiliz, hainbat liburu idatzi zituen gaztelaniaz. Honek Lauaxetarekin izan zuen harremana erlijio eta kontzientzia arlokoa zen, gure olerkariaren aitor-entzule baitzen.

Aita Nartziso (1900-1974). Bataio izenez Jose Antonio Garate Mugika zen, Azkoitiko semea. 2000. urtean, hura jaio zeneko mendeurrena zela eta, *Karmel* aldizkari honen 4. alean idatzi genuen haren biografia laburra. Gasteizko Karmeldarren komentuarien zati bat kartzela zen eta beste aldean karmeldarrak bizi ziren. Aita Nartziso han zen, ikasle gazteen zuzendari. Aita Lino Akesolok beheko lerroetan dioskunez, sarti joan ohi zen presoak bisitatu eta haiei poz pixka bat ematera. Horrela, Lauaxetarekin harreman on-onak izan zituela badakigu. Aipaturiko *Karmel* aldizkariaren ale horretan azaltzen genuen Lauaxetak eta A. Nartzisok izan zuten harremana eta batez ere, Lauaxetak kartzelan idatzitako azken olerkiaren eskuizkribuaz, Lino Akesolok dioena. Hona handik hona aldatua:

Lauaxetaren azken olerkia kartzelan.

Honela diosku lekukoetariko batek, A. Lino Akesolok:

“Bada besterik ere aita Narkisi (eta beste Leringo seme izan zen karmeldar bati) zor diogunik; Lauaxeta zanaren azken-olerkiak, il-aurretxokoak, euskerazko eta erderazkoak, egilleak

berak utzirik, gorde zizkigun. Urteak geroago neratu izan nintzan bitarteko, olerki aiek Lauaxetaren aitari eramateko. Ez, lenago kopia bat atera gabe. Orain zazpi bat urte, azken-olerki aiek liburu batean ateratzeko dana gertu zegoen. Lauaxetaren etxeok utzitako kopia utsez beterik zegoen eta neronek eman bear izan nuen nerean, okerrak zuzentzeko. Liburua etzan azaldu. Gure artean ordurezkerok sortu ziran istilluek beldurra sartu zieten nonbait artan zebiltzanei eta atzera eragin. Orain, ez liburu ez kopia, gelditu naiz. Aita Narkis zanak, orraitio, bere eskuetan gorde zuen bat, gure arteko García Lorca izan genduenaren esku-idatzia, orijinala, paper-zati erdi puskatu batean egiña. Gasteizen, 1936-tik aurrera, karmeldarren etxearen alde aundia kendu zieten agintariak prailleei, espetxetako. Narkisek al zuen guztia egin zuen ango espetxeratuena ordu beltz mingotsak ezitu eta arintzen. Lauaxeta zana-ren azken-bertsoak olaxe iritzi ziran fraideen eskuetara”.

Kartzela honetan idatzi zuen, Aita Nartzisok gorde eta eman digun azken olerkia, 1937ko ekainaren 2ko data duena; hemen adierazten du bere bizitza osoan izan zuen fede bizia:

*Señor, ¿qué buscas en mi pecho,
si el alba la cubrí de lodo?
Tu rastro, que signaba todo,
en ruinas lo dejé deshecho.*

*¿Quién, Señor, borró de mi frente
aquel resplandor de tu Cara
que al espejo del agua clara
prestó cristal más transparente?*

*Qué bellas fueron mis pisadas
cuando la gracia florecía,
en las alas del nuevo día
que robó luz en tus miradas.*

*Cuán presto sabía tu estancia
y la sombra de tu Figura,
pues una sutil hermosura
me guiaba con su fragancia.*

*Pero ¿pasaste por mis huertos,
con tus claros ojos en gracia
para que la flor fuese lacia
y los frutos nacieran muertos?*

*¡No, Señor!, vuelvan tus caminos
con hermosura siempre nueva
y su señal mi amor remueva
para seguir tus pies divinos.*

*¡Ven, Señor!, con secreto viento
tu Espíritu mueva mis ramas,
y con brisas bese las llamas
la paz divina de tu aliento.*

*Surjan incendios en mi pecho,
que quemen los frutos de muerte.
Tu libertad me ate tan fuerte
que sea tuyo por derecho.*

*Así, Señor, tu voz me fuera
con la belleza por misiva
lleno de perdón mientras viva,
lleno de gracia cuando muera³.*

Lehen aldiz argitaratu nahi izan zenean, A. Nartzisok berak gutun interesgarria idatzi zion Juan Angel Etxebarriari, 1968ko apirilaren 21ean, eskuizkribu hau dela-eta:

“Nik emen ez daukot Lauaxetaren olerkitxo bat besterik. Laburra da, otoitz bat, «Ven, Señor!» daroa izenburutzat. Ber-idatzia ez da, bere eskuz idatzia baño. Orregatik oso balio aundikotzak daukot. Idazkera bera be gogoangarria da. Bederatzi lauko dira erreskada bitan idatzita. Zazpi ezkerrean lerrokatuta dagoz, bi eskuman. Ezker-eskumako lerroak, banakatzeko L aundi bat jarri dau. L orren gañeko txapelaren gañean hurrinontzi bat otoitzaren iruditzat-edo. Arri-ikatzeez idatzia dago.

³ E. URKIAGA, *Olerri guztiak*, Bilbao, 1985, 410-412. (Aita Onaindiak prestatua).

Olerkitxo onek, nire eritxiz, argazkiz (antz-berdiñez, facsimil-
ez) argitaltzea merezi leuke. Ori zeuek ikusi bear dozuena da.
Argazkia bidaliko dautzut, ez eskuz idatzia. Aita Lino Akesolo
astero etorri oi da onera, eta aregaz bidaliko dautzut⁴, bafia
atzeratu neuri biurtzekotan. Inoiz alkarregaz itzegitea izango ba-
geunke, beste gauzatxo batzuk be esango neuskizuz. Idatziz
esatea, gaur-gaurkoz, ezteritxot ondo. Zeiñen eskuetara doan
ez dakidala asi naz idazten-eta. Geiegi ez ete da gero?

Jaungoikoak gorde gaitzala norbaitzuen eskuetatik.
Jaungoikoagan adiskidetzat eskeintzen yatzu gaugereroz.

Aingeruen Narkis (Aita Garate)".

A. Luis Arostegi Ganboa (Gatika, 1939-01-21). Mundu oso-
ko Karmeldar Oinutsen Jenerala da gaur egun. Aurreko urte
askotan ere Ordenaren zerbitzuan izan zen, gure San Joakim
Probintziako Probintzial izanez. Zornotzan eta Larrean bizi zen
garaian *Karmel* aldizkariko ohiko idazlea zen. Bere idazlane-
tan teologiazko gaiak erabili ohi zituen batez ere; noizbehinka,
poesiak ere idazten zituen, gehienbat berak gogoko zituen po-
eta onenen itzulpenak. Poesiarako zaletasuna gaztetatik, ia
umetatik, datorkio. Nobiziotza hasterakoan izena aldatzeko
ohitura zen Karmeldarren artean, geroago, Kontzilio ondoren,
ohitura hori indarrrik gabe gelditu bada ere; horrela, Luis Aros-
tegik, poeta klasiko haren miresmenez edo, *Virgilio* hautatu
zuen beretzat... 1969an, *Poemas Inacabados / Amaitu bako Po-
emak* argitaratu zuen; euskarazko itzulpena Santi Onaindiarena
da. *Karmel* 1993-3 alean argitaratu ziren zortzi poeta frantzia-
ren poema bana, Luis Arostegik euskarara itzuliak. Jose María
de Hérédia, Louis Pergaud, Paul Verlaine, Henri de Régnier,
Gerard de Nerval, Stéphane Mallarmé, Charles Baudelaire eta
Félix Arvers ziren poeta horiek. Beste hainbat poesi lan ere
idatzi ditu, originalak nahiz itzuliak... Irakurleak jakin beza, be-
raz, Luis Arostegi badela norbait poesiaren arloan. Aipamen la-
bur hau egin nahi izan dut teologo gisa soilik ezagutzen duten

⁴ Ibd., 409. or.

irakurleci begira. Luis, semez, Lauaxetaren auzo-auzokoa da. Gatika eta Laukiz ia harrikada batera baitaude.

Lauaxeta' ren poesi-gunetarantz

Iruñean bizi zela egin zuen hau, 1973an. Zer esan lan honi buruz? Jokin Zaitetik oso ontzat jotzen du lehenago aipaturiko "Urkiaga eta biok" idazlanean:

"Ari ontara Urkiaga sakonen aztertu duena, Arostegi karmeldarra dugu nere uste kaxkarrean".

Ez nuke ezetzik esango, garai hartan behintzat; geroago ez dakit, lan zabalagoak, tesiak etab. egin dira-eta. Izenburuan adierazten duenez, haren poesiaren muin-muineraino sartzen saiatu da. Lau atal ditu lan honek: 1. Sarrera. 2. Poesi lurraldeak. 3. Bideak. 4. Poesia bera. Begirada arina egingo diogu guztiari.

Sarreran garbi esaten du lan horri ekiterakoan duen xedea:

"bere poesi soilaren muiñak billa ta idoro nai geunkez. (...) Edertasunak maillak daukaz, edo era askotako edertasunak dagoz. Baña nik, emen, poesi-izenagaz, estu arturik, goimaillako edermiña aditu nai dot".

Olerkariak nola lortzen duen hori edo haren jarrera eta bilaketa adierazi nahi dizkigu ondorengo bi lerroetan:



"Olerkaria, benetako olerkaria, gun edo erdi-erdi baten billa dabil olerki bakotxean, biraka, urduri ta iñoz ase eziñik".

Poesi lurraldeak esatean, Lauaxetak bere poesietan lantzen dituen arloak esan nahi da; "gaiak" esanda baino hobeki adierazten da, "guneak" edo "lurraldeak" esanda; poetaren inspirazioaren iturri dira eta hara jotzen du behin eta berriro. Hiru gunc edo lurraldetan biltzen ditu: maitasuna, gaztetasuna edo gaztaroa, denboraren igarokortasuna. Lauaxetak berak hau dio bere olerki gaiei buruz:

"Maitasunak sortu-azoten dauz neurtitzik edenrenak, eta maitasun-bidetan azkena barik, lenengua naz. Maitasuna, Aberria ta

KARMEL

Jaiko Foru dala-ta,
P. Puxatia



Lauaxeta
L. Aizola


Euskara ta instituzioen alegiñak
Unibartien

Peru Alkartaren 6. aurtu
A. Urrutia


«Ezta Alkartuak»
Onaindia

Bat...
A. Oñate

Kon...
A. Oñate



Ordenagailuak
P. Bengoa



Urtarrilla - Epailla
176. Zenbaku

1986 - 1

Uskurtza ixan dira gairik ugarijenak olerkariarentzat, neuretzako be bardin”.

Hiru alde hauetan sumatu omen zuen Lauaxetak bere poesia, baina ez liratekeela hauek banan hartu behar uste du:

“Gitxi gora-bera danak dagoz danetan, eta baktotxean bataz edo besteak indartzen dau beste bien gañetik bere margo zeargia”.

Erabili zituen bitartekoak edo bideak aztertzen dira gero, haren poesiaz egiten den gogoeta honetan. Hauen artean, simbolismoa eta modernismoa azpimarratuko nituzke:

“Lauaxeta k simbolo-poesira jotzen dau. Bere eles ta edestiak ez dira eles eta edesti soillak, beste zeozer esan nai dabe, eta jokera au, batzuetan batez be, argiegi ta lar naiezkoa be ba-dirudi”.

Modernista-giroaren zipriztinak ere ageri dituela dio: “Ez dabe utsik egiten liliak eta larrosak. Ugari dabil urrea ta zidarra”. Modernismoaren azalaz mintzo da orain, baina modernismoaren jatorrian dagoen “parnasotar giroak irakatsi eutsozan Lauaxeta ri bere era lirain eta apaiñak”.

Ohar zehatz eta egokia aurkitu dut ondorengo lerroetan:

“Modernista-kutsua askoz nabariago dager bere gaztelera-zko itzulpenetan. Oneen aurrean olan idatzi eban: ‘La traducción de estas poesías no puede ni debe ser guión para examinar el valor de Arrats-beran. El secreto de la poesía se oculta en la gracia de la forma, en la pulcritud del buen decir’. Bestalde, poesiari ta euskereari buruz au zan bere critxia: ‘Neurez betirarte ixilduko nintzan, barruko ixurpen oneintzat ezpadago azal ederrik. Euzkeraz batez be!’. Eta oindiño: ‘Baña ele lander baten seme jayo nintzan ezkeru bertso ñimiño oneik be, argitara datorz”.

“Ele landerra, euskerea. Orregaitik jantzi ta pitxiz aberastu egin bear izan dauz bere olerkiak erderazko itzulpenetan, ta olan, bitartean, poesia ondatu (beraz egia diño: erderazko

itzulpenetan ez da billatu bear Lauaxeta-ren poesia). Poesiak bear dauana 'landertasuna' da izan be, au da, garbitasuna ta izatearen biotzean zuzen jotea. Emen dago here era ta 'grazi' guztia".

Poesia bera zer den adieraziko digu, azkenez. Eta poetaren beraren hitzetatik abiatuko da: "Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakoetak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorri eta barneko zugatz onetatik txorriak aidatu ziranarren, abar-dardarea ezta amaitu".

Txoriak etortzea eta haiek bihotzean sorrarazten duten dardara. Poesia nola ermetzen den, nolakoa den hasieran eta gero, apurka-apurka bere forma hartuz doanean eta azken idazketan:

"Leenengo, puntu baten, erdi-erdiko ikus-sentipen erage eta sendar bat; gero, dardara gozo, mintsu ta billatzalle baten zabaltzea: dardar-zabaltze onetan dator olerkia bere osora. (Erdi-erdiko ikus-sentipen orretan ez da 'txoririk' 'ikusten'; 'dardar' beraren leenengo urradura baño ez da)".

Lauaxetak poesiaren dardara hau ezagutu zuela diosku. Poesia bitxi bakana dela, eta munduan idatzi eta idazten den gehienak urrundik baino ez duela haren itxurarik. Benetako poesiaren susmo edo bidatza izanik, ez da, horratik, alferrekoa. Lauaxeta bide onean zen.

"Poetaren biotz-agoan erriaren edo gizaki beraren ezkutu mugagea une baten dardaraka indartzen da. Ta olan poeta gizadian ikur edo aztarna bat da. Batez be bere eder-abotsa odol ixilean amaitzen danean".

Santi Onaindiaren argitalpenaz ari gara. Gure idazle honek ahalegin handia egin zuen Lauaxetaren olerkiak argitaratzen eta euskaltzaleen artean haren berri ematen. 1985ean *Olerki Guztiak* argitaratu zuen. Lehen argitalpenean, ahal zituenak edo ustez olerki guztiak bildu arren, ez zen ausartu izenburuan "guztiak" jartzen. Sarreran 40 bat orrialdeko biografia da-

kar; haren bi obra nagusiak, autorearen gaztelaniazko itzulpena; liburuetan bildu gabeko olerkiak; Santi Onaindiaren oharpenak, iruzkinak etab.; gehigarriak. Hemen sartzen dira aurreko argitalpenean olerkien aurrean zetozen hiru idazlanetik bi: Zaitegirena eta Luis Arostegirena.

Karmel 1987-3 alean "Lauaxeta Omendua" idazlana argitaratu zuen. 1954an *Milla euskal Olerki eder* argitaratzean, inork ez zuela sinesten berak han esandakoak, dio. Lauaxeta ez zutela aintzat hartzen orduko euskal idazleek. 1974an argitaratu zuela *Olerkiak*. *Lauaxeta* liburua, egun batetik bestera agortu zena eta orduan hasi zirela euskaltzaleak Laukizko olerkariaren handitasunaz ohartzen. Antton Valverdek haren olerki batzuk musikaz jarri eta diskoa atera izanak asko lagundu omen zuen zabalkunde horretan. Haren ohoretan eginiko hainbat xehetasun ageri dira idazlan horretan. Beraz, huts egiteko beldurrik gabe esan daiteke, Santi Onaindia izan dela gure Olerkaria czkututik euskal irakurleen plazara ateratzen gehien ahalegindu dena.

Lino Akesolo, euskal literatura arloan batez ere, kritikari zorrotza genuen. Balio literarioetan baino gehiago sartu ohi zen, gure literaturako autoreen testuak zuzen eta hutsik gabe transkribatzean. Bere onetik ateratzen zuen idazle zaharrak eta, desitxuraturik eta akatsez heterik agertzeak. Batez ere euskarazko aldizkari eta liburu-tako akatsa zela uste zuen eta, beraz, inprimategietako langileek euskara ez jakitetik etor daitekeena, baina Lauaxetaren gaztelaniazko zenbait bertso oker ulertu eta transkribatu izana EREIN eta PAMIELA-ko argitalpenak prestatu dituztenei egozten die argi eta garbi. *Karmel* 1986-1 alean *Lauaxeta ez da ain erdal-bertsogille txarra* izenburuaz idatzi zuen artikulua ari naiz. Askoz lehenago ere erakutsi zuen Lino Akesolok gure idazle zaharreganako begirunea eta haien argitalpenak prestatzean zabarkeriaz ari izan direnen aurkako egonezina. Gogoan dut behin *Idazle baten zoritxarrak* (Juan Tartas) izenburuaz idazlan gogor samarra idatzi zuela⁵.

⁵ *Karmel* 1977-2, 55-66. *Idazlan Guztiek* (1-226-232)

Orain arteko ez gain, *Karmel* eta *Olerti* aldizkarietan agertu diren Lauaxetari buruzko olerki eta idazlanak agertuko ditut hemen, aipamen soil gisa baino ez bada ere:

Anjel Bidaguren: *Lauaxetaren maitale kutuna* izenburuaz bederatzia ahapaldiko olerkia idatzi zuen, ahapaldi bakoitza lauko bertso-lerroetan idatzia⁶.

Zortziko txikiko neurrian hamahiru ahapaldiko beste sorta bat ere idatzi zuen *Lauaxeta* izenburutzat duena⁷.

Augustin Zubikarai: *Lauaxeta* 'ri izenburuaz, neurri librean, lerrokada txikietan eta era errimatsuan idatzi zuen, ohi zuenez, *Olerti*-n. Sei ahapaldi dira⁸.

Martin Ugarte: *Olerti*-n idatzi du ahapaldi ugaritan, bihotzetik harako olerkia. *Urkiaga* 'tar Estepan, "*Lauaxeta*" zanaren aitamena jarri dio izenburua⁹.

Joseba Aurkenerena: Lauaxetak *Gudari* aldizkarian argitaratutako gaztelaniazko bi ipuinen itzulpenak egin ditu *Karmel* aldizkarian: *Aititaren fusila*¹⁰ eta *Guztiz ederreko zelata*¹¹.

Gotzon Garate: Bi idazlan luze eta bikain eskaini dizkigu *Karmel*-en irakurleoi: *Lauaxeta Jesusen Lagundian*¹² buta eta *Lauaxetaren alderdi erromantikoa*¹³ bestea. Lehenengoa batez ere oso gustura irakurri nuen. Lauaxetaren bizitzako une interesgarri bat aztertzen da hor, haren inguruko eta belaunaldiko beste zenbait idazleren berri zehatzak emanez.

Aurre-Apraiz: Aurreko lerroetan aipaturiko Gotzon Garate-ren idazlanak eraginiko gogoeta eta oroipenak agertzen dizki-

⁶ *Karmel*, 1986-4, 104-105

⁷ *Karmel*, 1997-3, 136-137

⁸ *Olerti*, 1984, 187

⁹ *Olerti*, 1983, 189-190

¹⁰ *Karmel*, 2003-2, 113-117

¹¹ *Karmel*, 2003-3, 96-101

¹² *Karmel*, 2003-4, 3-23

¹³ *Karmel*, 2004-4, 23-55

gu Aurre-Apraiz olerkariak. Hona izenburua: *Gotzon Garate ren Lauaxeta ri buruzko idazlana dalata*¹⁴. Gotzonen idazlanean agertzen diren pertsona batzuekin harreman zuzena izan zuen; hortik honen lekukotasunaren balioa eta indarra. Gotzon Garatek Lauaxeta junioradoan euskaltzaletu zela dio. Aurre-Apraizek zehazten du zertzelada hori edota, hobeki, hor esan ez dena osatzera dator; hau da, behin Zaitegi eta Andimarengana joan zela Lauaxeta berak gaztelaniaz eginiko olerki bat eskuetan zuela, haien oniritzia-edo jaso nahirik. Haiak hau esan omen zioten: *Itxi egik erdereea ta idatzi egik euskeraz, euskaldunok geure izkuntzea indartu bearra yaukaguk-eta*. Harrezkero, haien esanera, olerkiak euskaraz idazten hasi omen zen Lauaxeta. Aurre-Apraizek *Olerkariaren azkena* deritzen olerkiaren azken ahapaldia dakar bere lekukotasun honi amaiera emateko. Alda dezadan hona:

“Ta izadia illetaz dau, gau eta egunez,
Negarra dariola orri bakoitzetik.
Gudaoiñeko dubotsak, aserrez menditik.
Orban bagako odola didarka tatarrez”.

Luis Baraiazarra Txertudi

¹⁴ *Karmel*, 2004-3, 72-75